

Morrontxoko Rosa Marirekin baserriko tratu-lanaz hizketan

Jose L. Zabala Beristain

Ekainak bost, osteguna, eguerdian dugu hitzordua Rosamari Zabala Etxeberria Morrontxo baserriko etxeko-andrearekin. Baserriaren inguruneak udaberriaren jantzi berriz hornituak, herriko etxalde atarramendutik erten eta honera etortzeak lasaitasun gozoa eragiten du.

Bizarain mendiak eskaintzen du edertasuna, eder jantziak ditu bere magalak oinetik hasi eta tontorreraino, kaskoan Sanmarko kaxerna ohiaren irudia nabarmentzen dela.

Txirrita aldera begira jarrita ikuskizuna hagitz ezberdina duzu. Beheko zokuan industria gunearen orban luzea Berauneruntz luzatua, bestaldetik Palaziorainoko malda guztia makinak jana, iduri du bai Palazio eta baita Gabiria ere bat-batean goitik beheko errekaraino jausiko dirala, amilka, ahaztu gabe hortik sartu nahi dutela AHT.

Beste pabiloi multzoa Mastitik Arramendirainoko lubakia da, oinezkoentzat ia ibilgaitz bilakatu dira ingurune hauek guztiak. Lur eremu bakarrean bi alde desberdinak, bata egungo garapen ekonomikoaren eredu bortitza, natura suntsituta; beste aldea berriz, naturaren garapena, edertasunez mukurru.

Gu Morrontxora ekarri gaituena jakinmina baino ez da, hainbeste urtetan ikusi izan dugun esneketaria eta bere garraibide astoaren jardura ekonomikoaz jakin nahi genuelako. Ez da ez txantxetan har daitekeen arazoa. Honen historia luzea (ehunka urteetakoa) ia oharkabean desagertu zen, zein egokiago historia horren zatitxo baten berri emateko horretan aritutakoa baino. Ez

da bakarra izan, milaka dira jardura ekonomiko horretan aritu zirenak; aurrerantzean egingo al da azterketa jasoagoa.



Argazkia: José R. Pérez

Rosamarirekin elkarrizketa

Galdera- Hastapeneko galdera, zenbat anai-arreba zarete, aita eta ama...

Erantzuna- Zazpi anai-arreba ginen, orain bi gelditzen gara bizirik, bat Lezon ezkondua eta bestea ni, hemen, baserrian. Aita bertakoa zen, ama berriz oiartzuarra, Pikoketakoa, aitona eta amona ahaztuta dauzkat, pentsa gero zazpi urtetako amarik gabe geratu ginela eta nik zer nekien, hamaika urtetako bidali ninduten neskame Donostiara, nik aitak esanezkoa dakit nola goizeko seiretan etxetik atera, burutia buruan ipini eta xixtera hartzen zuen buru gainea, eta plazara joaten zela, berdura, fruta, esnea... Hari nola edo hala aurre egingen zion egunero, gero andrea hil egin zitzaion eta bakarrik geratu zen zazpi seme-alabekin. Izan hamaika seme-alaba izan zituzten baina horietatik zazpi bizirik.

Ama partutik hil zen gerra garaian Don Jose praktikantea bera etortzen zen baserri-
ra erditzen laguntzera; ezin izan zuen ezer egin. Orduan ikusi genituen gorriak eta bi, gerra hasi berria zen, balak eta granadak ziela dinbi eta danba nonahitik. Gure aitak zazpi seme-alabak hartuta beheko baserrira eramaten gintuen arrixkutik aldentzeko.

G- Zure gazte garaia nolakoa izan zen, eskola eta horrelakoak...

E- Esan dizut ba, orduan eskolan gutxi ibilia naiz ni, hamaika urtetako neskame Donostiara bidali zidaten zer nekien; doi-doi leitzen ikasi nuen, gainontzekoan ezer gutxi, azkar eskapo egin nuen etxe hartatik. Etxeko senar-emazteak mezetara joan ziren igande batean nere maleta prestatu eta ospa etxera. Neskame langintza hura mantenuaren truke egiten nuen, orduan dena errazionamenduan erabiltzen zen: olio, ogia... Etxean asko izaki, nonbaitetik atera behar bizitzeko, ez zen broma asko izaten orduan.

G- Zu tratuan ibilia zara urte askotan, nola hasi zinen baina, ezkondu aurretik edo ondoren?

E- Etxetik ezkondu aurretik, ni hemen jaioa naiz eta bertan bizi betitik. Aurreko ahizpa guztiak tratuan aritu ziren eta haiek ezkondu ziren bezala, niri gertatu langintza horretan.

G- Orduko gazte ohiturak oraingoak ez bezelakoak izango ziren.

E- Gaurko gazteei esaezu “hamarretako etxean”, alperrikako hitzak dira, gautxori egiten dute eta ez astean behin, oraingo asteburuak luzeak izaten dira, askatasuna gauza ederra da. Ordukoa estu samarra zen; oraingoa berriz, ez ote den gehiegia.

Semea etxean daukat, hogeita hamalau urte ditu eta ez da jaietan ateratzen. Esaten diot: “baina motel, andregaiak ekartzak etxera, ama betirako ez duk eta”. Beregaitik ez daukat keizterik, goizeko seiretan jeikiko da, bere gosaria prestatu eta lanera, etortzeko zortziak, bederatziak... ordu estrak sartuarazten dio nagusiak, etxeko lanak beti eginak harrapatuko ditu. Seme zaharrena berriz, istripuz hil zen, motuarekin eta etxe ondoan, hor dago gurutze bat hil zen tokian, kotxe batek jo zuen etxe aldera zetorrela, biek tupust elkar jo eta buru-hezurra hautsi kasko eta guzti zuela, hogeita hamabost urte zituen.

G- Etor gaitezen zeure langintzara, betidanik erabili duzu astoa garraiotzat.

E- Bai, bai, beti astoarekin ibili izandu naiz, gero karretera halakoa jarri zen peligran, behin Oxigeno fabrika pari hortan asto eta neroni jota airera bota zidaten, astoa lurrera, esnea lurrera, neroni ere igualtxo.

Gizona hil zitzaidala badira hemeretzi urte, hura hil eta hiru urtera utzi nuen esneketari-lana, bai, hamabost urte dira utzi nuela, erostunak fijoak ziren kale Madalenekoak, Maria de Lezokoak, horkoak ziren erosleak aurretik zetozenak auskalo noiztik, hauek joaten ziren berdura, esnea, fruta... Esan dizut nere aita joaten zela tratuarekin plazara.

Haiek ere ni bezala tratutik bizi ziren, haiei ez zitzaien beste inondik ezer etorriko, ederki aldatu da giroa geroztik. Baserriak galbidean jarriak dira, orain hiru behi atera ditut nik 32.000 mila durotan (961'62 euro) hiru aziendentzat eta bestela “erregalatu”; haiek hartu nituen txekian eta kutxarra argindarra, ura, telefonoa, etxeko gas-
tuak ordaintzeko.

G- Zu, Rosamari, ze ordutan jaikitzen zinen egunero?

E- Goizeko seirak aldera urte guzian, esnea jetzi egingo nuen hirurogehi bat litro erosleen artean partitzeko. Zazpitako etxetik ertetzen nuen kalera banaketa egiteko; itzulera berriz, 9:30ak aldera, guztia presa-

ka. Ni hamabi urtetako hasia nintzen behiak jezten eta baita ere behiak ostikoa jota esnea, neroni dena hankaz gora bota, hola-koetan makiltxo zorrotz batekin zizt-zazt atzean jotzen nien haserretuta.

Astoa zen orduan ia nagusi, zaldikarrua ere hor goitik gehienak horrela etortzen ziren, goizean hamaikak jo ezker denak etxeruntz hemendik pasako ziren, eguzki ederra jo edo euria ari bazuen guardasolare-



Argazkia: José R. Pérez

G- Zuen gazte garaian dena etzen lana izango, bestelako dibertimenduak izango zenituzten.

E- Gure gazte garaian, herriko Alamedan musika, Hernanin Oilalume, Sanmarko eguna ere ospatuko zen Bizarain mendian; orain dena aldatua dago, lehengotatik honera asko, asko aldatu da. Orduan oinez joango zen jendea, orain berriz kotxetan, dena lujozkoa, 3, 4, 5, 6 miloiko kotxeak, eupa mutilak!, ordainduko ez badira ere erosi kotxea.

Gaur jendeak ez du dirua aurreratzeko pentsamendurik, nola etorri hala bota; nik berriz, plazotan ez dut ezer erosten, aurretik dirua jaso eta dirua eskuan eroatera joan.

G- Ari gara, ari gara, zerbait aterako dugu elkarrizketa honetatik, lasto tartetik ere beti ale pizarren bat hartzen da, gurea ere hala izango da.

E- Bai, astoak ere horrela egiten du, zuk esan duzun bezala, muturrarekin bereizi egiten du aztarka lasto tartean diren ale pizarrak, onenez aurrera hobena bereizi.

kin. Gu zelaian ari baldin baginan esaten genion elkarri: “hara, hasi dira etxera bueltan, hamaikak juak dira”. Orain esaiozu zein joaten den astoarekin.

Lehen zen, nola esango nizuke, jendea hobeto bata bestearekin, portatu, kunplitu egiten zuten, orain bakoitzak bere astoari arre.

Ni oroitzen naiz gure aita difuntua nola alargundu zen eta ingurukoak etortzen ziren anaiari laguntzera, bost, sei mutil sega banarekin, hor arituko ziren jota eufaa! belarra mozten, sagardoa erango zuten, hiru bat meta-belar ebaki ebakiko zuten, etxera etorri, afari ederra eman, oilo zar bat hiltzen genuen, salda ederra egin, beste zeozer gainetik ematen genien ederki egoten ziren broma ederrean; orain emaezu! Gaur dirua dugu jaun eta jabe; mundu hau diruak jango du.

G- Udalarekin ere harremana izango zenuten, esnea saldu ahal izateko zerga edo antzekorik ordaindu behar izango zenuten baimenak eskuratzeko.

E- Kanpo lana egiteko alegia ez dut uste, ni hasi ezkerotik ez behintzat. Ni

gogoratzen naiz jaia zelata, udalera joan eta baimena behar zela jai egunetan lanean ari-tzeko, eliza ayuntamentuarekin unitua zela-ta hor ibili ziren.

G- Noiztik hasi zen garraio aldaketa, astoa utzi eta gaur ezagutzen duguna alda-tzen?.

E- Antza ematen hasia nion aldaketa horri, baina ez dakit zein urtetan, gutxi gorabehera aldaketa nabarmenena hasi zela hogeita hamabost bat urtetik honera. Gogo-ratzen dut astoak topoko aldapan nola ego-ten ziren herriko aparkaleku haundiena zen astoena eta zaldikarruena. Pixkanaka pixka-naka denak desagertu ziren haiek.

Kaleko lanetan hasi zen baserritar gehie-na, baserrietatik jendea aspalditik hasia zen bestelako lanetan ahal zuen moduan.

Astoa kendu nuen ondotik, esneketari ibil-tzen nuen asto hura saldu nuen eta kito, nik astoarekin egiten nuen eguneroko martxa.

Gero seme difuntua udaletxean hasi zen lanean diru gehiago etxean sartzen zen, nik egin nuen esnearena utzi. Esneko behiak kendu nituen eta behi gorriak ipini, hauek ez baitute esne asko ematen, etxeko zelaiak garbiak edukitzeko. Orain ere askok esaten didate azienda kentzeko. Dauzkagun lurrak ordea, nola eduki garbiak, zikinak azkar har-tzen baitu bestela.

G- Baserritik bizi zen garaian lurrak bazuen bere zeregina. Orain berriz, ze etor-kizuna baserriko lurrak zuenak bakarrik, ez orokorki hartuta, industriarako ? Etxeak egi-teko?

E- Lurrak daukazu, saldu nahi dituzu eta ez dizu Udalak saltzea uzten. Hemen inguruan badago saldu nahi duena, bai eta erostunak etorri; Udalera joan dira eta ukatu, hori dena jarria dela martxan eta ez duela saltzerik. Ze egin biazu, orain daukazu diruaren beharra zure bizimodua hobetu nahian aprobetxatzeko; geure jabegoa iza-nik, Udalak erabakitzen du zer egin.

G- Hemen behean ikusten da, industria hedatzen ari da, aldaketa haundiak dira horiek.

E- Haundiak, bai, oraindik ze ikusiko den hemen inork ez daki.

G- Telebista ederra daukazu hemen aurrean. "Hamaika ordu" egingo dituzu horri begira.

E- Hau ez da neretzat egiten dena. Orain gauza bat esango dizut, zezen korrida baldin badago eserita horri begira etorriko naiz, nik semeari esango diot: "hi! nere peli-kula duk hau", eta martxa egingo du. Pena ematen dio zezenak horrela sufritzen ikuste-ak, berak pilota partidak eta pelikulak ditu gogozkoenak, nik zezenak; ze esango dizut, hori gustatzen.

G- Duela berrogei bat urte hasi zinela esneketari, zenbatean saltzen zenuen litroa esne?

E- Ahaztu egiten dira burutik eta ez dakit, ez dut oroitzen, zorrak ere zituen erostunak, kobratu gabekoak baditut baita ukatutakoak ere utzitako zorrak. Nahigabe-ak izan ditut horrekin, denetik ezagutu dut, azkenerako letxeruari ematen genion esnea.

Orain ekar ezazu esne boltsakoa; hori esnea al da? Esne hau hartzen duzu egosita eta ura edaten ari zarela dirudi, igual iguala. Azken aldera hasi zitzaizkidan erosleak esa-ten medikuarena joan eta "sendagileak kendu dit zuk ekartzen duzun esnea, deskre-matua hartu behar dela" hau eta hura aitza-ki ugari alegia. "Boltsakoa baserrikoa baino hobea dela". Horrez gainera, zu esnearekin joan, atzo bi litro hartuko zizuna gaur "seño-ra siento mucho te voy a coger un litro solo por que ayer estuve donde el medico y me quita la leche del casero". Eta zer egin horren aurrean? Esku hutsik geratuko zara.

G- Zu oraindik pezetekin zabiltza, gaur euroak dira nagusi.

E- Lehen ostiralak hamabost, plazan erosten zidan Donostiako mutil baten ama etorri zitzaidan. "Buenos dias señora, que anda usted", "por aquí señora como usted haciendo compras" erantzun nion. "¿Oye a qué precio le estas vendiendo a mi hijo los huevos?" "A dos euros los grandes y los pequeños le estoy dando gratis, si le vendo a tres también no son caros. ¿Usted donde piensa que se va a llevar unos huevos como los de mi casa? Tomo la palabra que me ha dicho, se cree usted que me va a coger debajo de sus zapatos. ¿Sabe lo que tiene que hacer, señora?" "Ah, ya sé, irme donde otro casero". "Vaya pues haber si le dan más barato".

G- Ba al zenuten "bajarako" aukerarik bestelako langileak zutena jornala kobra-tzeko?

E- Ni jubilatua naiz, nik ez dut inondik sekula sosik kobratu. Orain Kaja Laboralera joan behar dut errentaren aitorpena egiteko. Behin bertako langile batek honela esan zidan: “señora, usted ya cobrará jubilación”. “Yo no cobro ni cinco céntimos” “¿Cómo que no?, usted es agrícola y tiene que cobrar algo”. “Mire señor, le advierto una cosa, antes no había posibilidad de pagar por delante” erantzun nion.

G- Legeak nola diren ikusteko pausoak emango zenituen ezta ?

E- Ni naiz sekula sekula hanka sartu ez dudana, lege horietatik ezta batere, ez naiz sekula mugitu ere egin. Nahiago dut nere martxan pakean bizi eta ez naiz mugituko, ez honera, ez hara, ez inora, nere buruari heldu egunerokoari, ogia jateko aina izan eta kito.

G- Bukatzeko, erreminta ba al duzu jublatuok lanean jartzeko?.

E- Bai, gizona, nahi baduzu emango dizutet batek sega eta sega-potua hartu eta besteak aitzurra, lan egiteko ez dira tresna txarrak.

– Agur, Rosamari, ikusi artean ondo izan.

– Agur, ondo izan zuek ere, ia ze ateratzen den Oarso horretan.